Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 390

Otsailak 1, 2021

“Pixkanaka taldea egonkortzen ari garela esango nuke”

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Emakumeen etxea
5 Dunboako liburutegia
6 All4Movil
7 Pentsionistak
8 Kirolak: Jauzien Gipuzkoako Txapelketa
9 Kirolak: Real Union, Gorka Kijera
10 Patinete elektrikoak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Euskarazko irakurzaletasuna
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Irunen orain dela mende bat albiste ziren gertaerak errepasatzeko, 1921. urtean Irunen argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria aztertzea aproposa izan daiteke. Zehazki, 1921ko otsailaren 6an kaleratutako aldizkariaren zenbakia "Otra partida fallida" titulua daraman idatziarekin hasten da, bustitako lastoa zekarren hirira iritsitako trenbide batek eragindako buruhausteak kontatuz. "Yolé"-k sinatutako bertso-lerro erromantiko batzuen ostean, "E.R" kronikagileak suhiltzaile taldearen funtzionamendua berrantolatu eta zerbitzua hobetzeko beharraz ohartarazten du beste behin. Jarraian, "Junior" izeneko aldizkarian Antonio Martínez Zumetak Gaspar Montes margolari irundarraren lanaren inguruan idatzitako artikuluari aipamena egiten zaio. Ondoren, Senac piano-joleak Bellas Artes antzokian eskainitako kontzertuaren ezustekoak eta arrakasta laburbiltzen ditu "RE-LA-MI-DO"-k.

Kirol kronikan, Real Union eta Athletic futbol taldeek jokatutako partiduaren emaitza eta partiduaren xehetasunak kontatzen dira. Horren ostean, Rene futbol jokalaria Frantziako selekzioarekin batera nazioarteko partiduak jokatu ahal izateko auzia konpondu delaren albistea ematen da. Bestetik, Colón pasealekuaren ezkerreko aldea eskuinekoa bezala lauzatzeko beharraz hitz egiten da. Segidan, Lucas Jaunaren ilobei zuzendutako lerroak irakur daitezke. Madrildik itzuleran Belgikako Erregea Irundik igaro direla jakinarazten da, agintarien bidaiaren nondik-norakoak azalduz. Era berean, irakurle batek aldizkarira bidalitako gutuna argitaratzen da lursail baten inguruko eztabaidarekin loturik gutunaren igorlearen arrazoiak azaltzeko.

Aldizkariaren hirugarren orrialdean, "El Principal" antzokiko dantzaldietan maskaren erabilera debekatu ostean hiritarren erreakzioak biltzen dira. Ostean, parrandazaleek gauean kalean sortutako iskanbilaren aurrean poliziaren esku-hartzea eskatzen da aldizkariaren hurrengo idatzian. Zenbaki honen kasuan, "Notas Municipales" izeneko atala ohi baino luzeagoa da azken udal bilkuran hartutako erabaki guztiak bildu ahal izateko. Azkenik, "Noticias" titulua daraman berri laburren atalarekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren 284. zenbakia, publizitatez betetako azken orrialdearen aurretik.

Argazkiak:

G29189: Real Union klubeko taldea, 1924ean Espainiako Kopako Txapeldun izan zena. Argazkiko jokalariak: Eguiazabal, Gamborena, Bergés, Emery, Aguinaga, Echeveste, Anatol, Errazquin, Vázquez, Azurza eta René Petit.

G24525: Bidaiariak Irungo tren geltokian.

G38555: Colón pasealekuaren hasiera eta Genaro Echeandia plaza (1930-1935).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalak hiriko ostalariekin COVID-19aren krisiarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko mahaia sortu du

Irungo Udalak hiriko ostalaritza eta merkataritzarekin loturiko COVID-19aren krisiarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko mahaia sortu du. Orain dela hilabete batzuk hiran pandemiarekin zerikusia zuten nobedadeak aztertzeko lantalde berezia sortu zen. Irun Aurrera planak martxan jarraitzeaz gainera, larrialdiko bestelako neurriak eta hiriko familia zein sektore ekonomikora bideraturiko laguntza ekonomikoak eman dira.

2020ko irailean udalak Covid Komitea sortu zuen hiriak eta hiritarrek etorkizunean izan zitzaketen beharrak erantzuteko prest egoteko. Horretarako, udal arlo guztietan komite arduradunak izendatu ziren.

Irungo merkataritza eta ostalaritzako ordezkariekin udalak etengabeko harremana mantendu du azken hilabeteetan zehar, adibidez, ostalaritzaren azken itxialdiaren harira neurri berriak hartu ziren. Egungo egoeraren ezegonkortasuna ikusita, udalak ostalaritzarekin harremanak egonkortzeko apustua egin du. Horretarako, udaletik lan mahai misto publiko-pribatu bat sortu da, udal arlo, elkarte eta hiriko taberna eta jatetxe ezberdinetako ordezkariak elkartzeko.

Lan mahaiaren sorrera hiriko ostalarien kolektiboak proposatutako ekimena izan da, datozen asteetan zehar aztertuko diren proposamenen artean. Gauzak horrela, lantaldearen lehen bileran 2021ko terrazen tasa %95ean bonifikatzea onartu da. Gogoratzekoa da terrazek 2020an zehar hobari hau izan zutela eta 2021erako %75eko hobaria aurreikusita zegoela. Hala ere, osasun krisialdiaren bilakaera ikusita, udalean aurten ere %95eko hobaria mantentzea adostu da, datozen egunetan zehar udal bilkuran onartu beharko dena.

Bestelako neurriak

Bestetik, ostalariek Gipuzkoako Foru Aldunditik onartu beharreko beste zerga batzuekin loturiko eskaerak egin dituzte, izan ere, gai horiek bere eskumenekoak dira eta udalak ezer gutxi egin dezake. Era berean, ostalaritzaren itxiera gertatzekotan, azaroko itxialdian Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearekin kudeatu zen bezala, ura eta hondakinen tasaren ordainketarekin loturiko neurriak hartzea nahiko lukete hiriko ostalariek.

Hortaz gain, osasun krisialdiaren garapena gertutik jarraitzeko eta hartu beharreko neurriak adosteko udal Covid mahaiak bilerak egiten jarraituko du. Bere aldetik, Jose Antonio Santano alkateak gainontzeko talde politikoei ostalaritzarekin loturiko ekimen honen berri eman die.

"Bertsoak eta bertsolariak Irunen XIX. mendean" lanak eskuratu du 2020ko J.A. Loidi ikerketa beka

Irungo Udalak Euskara Arloaren bitartez deitzen duen J.A. Loidi Ikerketa Bekaren hamabosgarren edizioa eskuratu du Joxan Elosegi eta Aitor Errazkin irundarrek aurkeztutako "Bertsoak eta bertsolariak XIX. mendean" proiektuak. Esleitutako ikerketa-lanak 12 hilabete iraungo du eta 9.000 euroko zuzkidura izango du.

Joxan Elosegi eta Aitor Errazkinek azaldu zutenez, "Bertsoak eta bertsolariak Irunen XIX. mendean" izeneko proiektuaren bitartez, Irunen XIX. mendean izan zen bertso produkzioa eta haien protagonista nagusiak ezagutarazi nahi dituzte. Horretarako, bertsolariak eta bertso jartzaileak, bertsoen nolakotasuna zehaztuz (neurria edo metrika, errimak, doinuak, gaiak, gaien tratamendua...), eta aurkezturiko bertso-sorta bakoitzaren testuingurua egokiro aurkeztuko dituzte.

Gertaleku antzera aurkeztu dute Irun, baina, zaila da bertsoen eta bertsolarien mundua mugatzea, egileen ustez, izan ere "Bertsoak ez daki geografiaz, euskarak darabil, eta euskal bazter orotara zabaltzen da hura gidari. Bestalde, adiera zabalagoan ulertu beharra dago betiere Irun hori, Hondarribia eta Bidasoaz beste aldeko herri mugakideak ere kontuan hartu behar baitira". Elosegik eta Errazkinek, orobat, Irungo bertso ondarea ahalik eta modu ulergarrienean aurkeztu nahi dute, eta haren garrantziaz jabetzeko beharrezkoak diren burubideak behar bezala finkatu nahi dituzte.

Gaur arte iritsi diren bertsoez eta bertso-sortez arituko dira egileak, idatzien bitartez iritsitakoak gehienak, han eta hemen, artxiboetan, autoreen bildumetan, bertso eta kanta-paperen funtsetan, prentsa idatzian eta liburuetan. Hala ere, ikerlariek esandakoaren arabera ez dute ahozko edota zuzeneko komunikazioetatik bertsoren bat edo halako sorta jasotzeko itxaropena guztiz galdu, aukera hori oso urrun sumatzen badute ere.

Historia jardunerako metodologiaz baliatuko dira egileak bertso sailak eta bertsolariak bilatzeko. Denboran kokatzeko unean, eta literaturaren azterketa eta kritikarako metodoez ondareko dokumentu bakoitzari eta bertsoen corpus orokorrari heltzeko momentuan, bertsoen ikerketari eta azterketari heltzeko unean arlo eta diziplina askotako elementuak hartu beharko dituzte kontuan.

Orain arte, inork ez ditu Irungo XIX. mendeko bertsoak eta bertsolariak bilduma bakar batera ekarri. Eta horixe izango da ikerlarien egitekoa. Gainera, bertsoen transkripzioa, eta grafia batuaz aurkezten saiatuko dira. XIX. mendea, aldaketa mendea izan zen inolaz ere, gerrek asaldatu zuten mendea. "Eta aztoramendu haren testigantza aparta eskaintzen digute bertsoek", baita Irunen ere egileen ustez.

Aurkezpenean Miren Echeveste Euskara Ordezkariak gogoratu zuenez Jose Antonio Loidi ikerketa Beka omenaldi bat izan nahi du adopzioz eta bihotzez bidasotarra zen Jose Antonio Loidirentzat. Bekak euskarazko ikerketa suspertu eta bultzatu nahi ditu hainbat esparrutan: antropologian, filologian, toponimian literaturan, osasun publikoan, hidrologian eta botanikan.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Istillaga plazan eraikiko da Emakumeen Etxearen proiektua

“Arreta handiz aztertu ditugu genituen aukera guztiak”

Miren Echeveste, Berdintasun ordezkaria

“Lokala %100ean irisgarria da, erdialdean dago eta udal-jabetzakoa da”

Miguel Angel Páez, Ogasun eta Ondareko ordezkaria

Miren Echeveste Berdintasun ordezkariak eta Miguel Angel Páez Ogasun eta Ondareko ordezkariek jakinarazi dutenez, Istillaga plazako 8. zenbakia izango da Emakumeen Etxearen proiektuaren behin betiko kokalekua. 280 m2-ko azalera duten udal-jabetzako lokalak dira eta, mahai gainean zeuden aukera ezberdinak aztertu ostean, Istillaga plaza Emakumeen Etxearen kokalekua izateko aukeratua da.

Proiektuaren premiak aztertu ostean, Emakumeen Etxerako kokaleku egokiena Istillaga plazako lokalak direla ondorioztatu da. Zentzu horretan, Miguel Angel Páez Ogasun eta Ondare ordezkariak nabarmendu duenez, “lokala %100ean irisgarria da, erdialdean dago eta udal-jabetzakoa da”. Páezek azaldu duenez, ezaugarri horiei esker Emakumeen Etxearen eraikuntza prozesua era nabarmenean azkartuko da. Hortaz, proiektua garapena 2021eko aurrekontuan sartuko da. Orain parte hartze irekiko prozesuaren bitartez instalakuntzaren beharrak zehaztu bezain laster, eraikuntza lanen prozesua azkartzea posible izango da.

Guztira, milioi eta erdiko aurrekontua bideratuko da Emakumeen Etxearen proiektuaren garapenera. 2021eko Aurrekontuaren Zirriborroa 170.000 eurotakoa da, proiektua idatzi zein obra zuzentzeko, besteak beste. Proiektuaren ekoizpena aurten hasi eta egokitzapen lanak datorren urtean amaitzea aurreikusita dago. Horretarako, 2022an 330.000 euroko ekarpena jasoko du Irungo Emakumeen Etxearen proiektuak. Miren Echevestek azpimarratu duenez, “Arreta handiz aztertu ditugu genituen aukera guztiak”. Hortaz gain, erabakia hartu aurretik beste talde politiko batzuen proposamenak entzun ondoren, irtenbiderik azkar eta eraginkorrena hartu dela baieztatu du Berdintasun ordezkariak. Behin lokalaren ezaugarriak ezagututa, partaidetza taldearen bitartez Irungo Emakumeen Etxearen beharrak zehaztu eta adosteko unea izango da.

Echevestek azaldutakoaren arabera, lokal horietan emakumearen etxea behin betiko kokatzeko epeak laburtzeak Ikust Alaiaren lokalak erdialdeko auzo elkarteak oso azkar erabili ahal izatea ahalbidetzen du. “Emakumeentzako topagune, lan egin eta ahalduntze gune hau behin betiko hemen instalatzeak azkarrago ibiltzeko aukera ematen digu, eta horrek erraztuko du erdialdeko elkarteak Ikust Alaiaren lokalak lehenbailehen eskura izatea”.

Partaidetza irekiko prozesua

Irungo Emakumeen Etxea eraikitzeko proiektua 2020ko partaidetza prozesuarekin abiatu zen. Hasiera batean, Emakumeen Etxerako guna gaur egun Palmera Monteron dagoen antzeko bigarren ekipamendu batean jartzea aurreikusten zen. Proiektuaren epeak luza zitezkeela kontuan hartuta, Ikust Alaia eraikinaren lokalean kokatzea erabaki zen, hau da, erdialdeko auzo elkartea kokatuko den lokalean. Emakumeen etxea Istillagan kokatzeko azken erabakiari esker, proiektua azkarrago bideratuko da eta eraginkorragoa izango da.

Osasun krisialdiaren ondorioz Emakumeen Etxearen edukiak diseinatzeko prozesua atzeratzea beharrezkoa izan bada ere, Miren Echevestek gogorarazi du parte hartze irekiko prozesuak martxan jarraitzen duela. “Prozesuan izena eman duten emakumeek, ehun inguruk, prozesuan berme guztiekin parte hartu ahal izateko formulak aztertzen ari gara”, adierazi du udaleko Berdintasun ordezkariak. COVID-19aren zabalpena ekiditeko agintariek ezarritako segurtasun-neurriak betez, proiektuaren ekarpenen bat egin nahi duten ahotsak entzun eta kontutan hartzeko formulak bilatuko dira. Emakumeen Etxea joan den abenduan Irungo Sozialistak taldeak eta Elkarrekin Podemos/Ezker Anitza-IU taldeak sinatutako Gobernu Akordioaren dokumentuan agertzen den proiektuetako bat da, alegia “Garapen jasangarriko helburuak dituen tokiko programa”.

Emakumeen Etxeak emakumeen ikusgarritasun soziala zabaldu nahi duten guneak dira, eta horrela, haien aitorpenean aurrera egin gizartean. Emakumeen prestakuntza, topaketa, eztabaida eta jardunaldi koordinatuak egiteko politika batean sartzeko tokiak dira, emakume feministen taldeak sortu edo sendotze aldera. Sozializatzeko berdintasunezko guneak dira, eta, haietan, gazteak nahiz helduak errespetuz biltzen dira, segurtasun-klima batean, eta gune publikoa berdintasunean gozatzeko duten eskubidea ere bermatzen zaie.

Dunboako liburutegiak liburuen mailegu zerbitzua berreskuratu du

Irungo Martxoak 8 kaleko 4. zenbakian liburutegi zerbitzua eskaintzen du Dunboako Auzo Elkarteak. Gaur egun liburutegiak 411 irakurle dauzka eta 11.000 liburu ditu aukeran. Zerbitzua astelehenetik asteazkenera arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara zabalik dagoela gogoratu du Gemma Nanclares Dunboako liburutegiko arduradunak.

Zeintzuk dira Dunboako Liburutegian liburuak mailegatzeko baldintzak?

Guztira, irakurle bakoitzari aldi berean 3 liburu hartzeko aukera ematen diogu. Hiru liburu horietako bat nobedadea izan daiteke eta , hortaz gain, irakurleak beste bi liburu aukeratu ditzake. Era honetan, irakurle gehiagori nobedadeak eskuratzeko aukera ematen diegu. Maileguaren iraupena hilabete batekoa da eta, behar izatekotan, mailegua luzatzeko aukera dago. Gainera, norbaitek liburu zehatz baten bila dabilenean zerrenda batean apuntatu eta liburua itzultzen denean, liburuarekiko interesa erakutsi duenari abisatzen diogu.

Dunboako liburutegiko erabiltzaile izateko auzoko bizilaguna izatea ezinbestekoa da?

Ez, ez da beharrezko. Gainera, guztiz doakoa da eskaintzen dugun zerbitzua. Auzokoa ez diren erabiltzaile asko dauzkagu, esaterako, Irungo gainontzeko auzo, Hondarribia edo Nafarroatik etorritakoak. Ezagunek gure zerbitzuaren berri eman diete eta horrelaxe heldu dira guregana.

Nola egokitu da liburutegia COVID-19aren murriztapenetara?

2020ko urrian ireki genuen berriro liburutegi zerbitzua. Irekiera jakinarazteko auzotik kartelak ipini genituen eta auzo elkartearen blogean albistea zabaldu genuen. COVID-19aren harira hartutako neurriak direla eta liburu mailegua da momentuz liburutegian berreskuratu den zerbitzu bakarra. Izan ere, pandemia iritsi aurretik liburutegian ikastaroak edo Bidasoako idazleekin tailerrak antolatu ohi ziren. Hortaz gain, bazkideek liburutegiko mahaiak, ordenagailua edo interneteko konexioa erabiltzeko aukera zuten, baina, udalak bestelako baimenik eman arte ezinezkoa izango da zerbitzu horiek berreskuratzea.

Zeintzuk dira egun liburutegian hartutako segurtasun neurriak?

Liburutegira sartzeko maskara erabiltzea eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea ezinbestekoa da. Erabiltzaileek itzulitako liburuak plastikozko poltsa berezietan eta kaxa batzuetan sartzen ditugu liburutegira itzultzerakoan, eta 10 egunez baztertuta izaten ditugu. Bestetik, maiztasun handiz bisitariek gehien ukitzen dituzten lekuak desinfektatzen ditugu. Hortaz gain, liburuak ukitzeko eskularruak jantzi behar dira.

Jendeak oparitutako liburuak jasotzen dituzue?

Bai, jarduera berreskuratu ostean prebentzio neurri gisa liburu berririk ez jasotzea erabaki zen, baina, berriro jendeak ekarritako liburuak jasotzea erabaki dugu, noski, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuz. Urteko garaiaren arabera jendeak liburu gehiago edo gutxiago ekartzen dizkigu. Jasotzen ez dugun liburu mota bakarrak entziklopediak dira, informazio zaharkituta gelditu delako, gaur egun inork gutxik erabiltzen dituelako eta liburutegiak apal asko beharko genituzkeelako jendeak ekarritako entziklopedia guztiak gordetzeko.

Gustu guztietarako liburuak dauzkazue?

Era askotariko liburuak dauzkagu, 11.000 inguru. Herrialde guztietako narratiba izateaz gainera, haurrentzako liburuak, komikiak edo txiste liburuak dauzkagu. Liburutegian gaztelania, euskara, ingeles edo frantsesez idatzitako liburuak dauzkagu.

Dunboako auzo elkarteko liburuzain gisa, erraza da irakurleen zaletasunak ezagutzea?

Bai, honelako liburutegi batean erabiltzaile eta liburutegiko arduradunaren artean harreman oso estua sortu ohi da. Jendeak ezagutzen nau eta harreman hurbil horri esker gomendioak egiteko aukera dut jendearen gustu eta iritzietan oinarrituz.

Liburu berriak eskuratzeko orduan, irakurleen iritziak kontutan hartzen dituzue?

Irungo Udalak emandako aurrekontua aprobetxatuz, gutxi gorabehera hilero bi liburu berri erosten dira. Hortaz, urte amaieran 24 liburu berri izan ohi ditugu gure apaletan. Hortaz gain, urte amaieran aurrekontua soberan izanez gero, liburu berriak erosteko erabiltzen dugu gelditzen zaigun diru guztia. Honela, liburutegiko eskaintza gaurkotzeaz gainera, irakurleek egindako eskakizunak eskuratzeko aukera dugu, beti ere, tarteka mota eta genero ezberdinetako liburuak erosiz.

“Bidasoako idazleen liburu guztiak mailegatzen dituen Irungo liburutegi bakarra gara”

“Dunboako liburutegian genealogiarekin loturiko liburuentzako atal espezifikoa dugu”

Bidasoako idazleentzako toki berezia duzue Dunboako liburutegian?

Bai, Bidasoako idazleentzako apalategi berezia dugu liburutegian. Asko maite ditugu eta haiek ere asko maite gaituzte gu. Izan ere, Bidasoako idazleen liburu guztiak mailegatzen dituen Irungo liburutegi bakarra gara.

Hortaz gain, liburutegiko genealogia atalari garrantzi handia ematen diozue?

Bai, izan ere, genealogia zerbitzua eskaintzen duen hiriko liburutegi bakarra gara. Liburutegian genealogiarekin loturiko liburuentzako atal espezifikoa dugu, berriki Irungo artxiboak oparitutako liburu askorekin osatu duguna. Zerbitzu honen bitartez eskualdeko familiei haien senideekin zuhaitz genealogikoa osatzen laguntzen dugu. Are gehiago, biologikoki senideak aurkitzeko bilaketetan laguntzen ari gara. Esaterako, orain dela gutxi Irungo neska baten familia biologikoa aurkitu dugu, Burgosen adoptatua izan zena. Beraz, jendeari Dunboako liburutegira etortzeko gonbidapena luzatzen diogu, liburuak maileguan eraman edota haien iragana arakatzeko material eta jarraibideak azaltzeko prest gaude eta.

Jon Imanol Garmendia, All4Movil:

"All4Movil-en telefoniarekin dirua, denbora eta lasaitasuna aurrezteko aukera eskaintzen dugu"

All4Movil telefonia eta telekomunikazioen sektorearen inguruan lan egiten duen enpresa da. Enpresaren egoitza Irungo Puiana auzoan kokatuta dago eta bezeroen beharretara hobekien egokitzen diren telekomunikazio zerbitzuak kontratatzeko helburuarekin lan egiten dute. Jon Imanol Garmendiak azaldu duenez bezeroen arazoak konpondu eta haien gogobetetasuna helburu dutela lan egiten dute All4Movil-etik.

Noiz eta nola sortu zen All4movil?
Udaletxeak Sindikalean ikastaro bat antolatu zuen eta hortik telefonia enpresa eta zerbitzuekin oso konforme ez zegoen talde txiki bat osatu genuen. Bezero bezala engainatuak sentitzen ginen eta ez geunden batere pozik jasotako tratuarekin. Hortik aurrera operadoreek nola lan egiten duten ezagutzen joan ginen, kontratuetan eskainitako zerbitzuak eta baldintzak ikertzen, erabiltzaileei laguntzeko asmoz. Egia esan, 8 urte daramatzagu eta jendeak geroz eta gehiago laguntza eskatzen digu kontratazioak, faktura erreklamazioak edo konfigurazioak egiterakoan.

Erraza izan zen orain dela 8 urte honelako negozio bat hastea?
Ez, egia esan, zailtasun ugari izan genituen. Orokorrean, jendeari nagitasuna eragiten diote honelako zerbitzuen gestioak, jendeak ez ditu telefonoa kontratuen atzean ezkutatzen diren tarifa, prestazioak edo baldintzak guztiz ulertzen. All4movil-en bezeroei aholkularitza zerbitzua eskaintzen diegu.

Telefoniarekin loturiko buruhausteei irtenbide azkarra ematen diezue?
Bai, ez dugu dena jakin behar, hau da, garrantzitsuena dakienaren telefono-zenbakia izatea da. Gu telefonia arloan jakitunak garela esan daiteke, esperientzia handia daukagu eta telefonia konpainiek ez gaituzte gainontzeko bezeroei bezala zorabiatzen.

Zerbitzuak kontratatzerako orduan aholkularitza eskaintzen diozue bezeroari?
Bai, batez ere, guregana etorri ohi diren bezeroak denbora luzez arazoak izan dituztelako edo arazoa areagotu denean izan ohi da. Horrela, bezeroek arazo guztiak konpontzeaz gainera, tarifan aurreztea lortzen dugula ikusten dutenean aurrerantzean gure zerbitzuak kontratatzen jarraitzen konbentzitzen ditugu. Hasieran jendeak ez gaitu ezagutzen, baina, gero eskaintzen ditugun soluzio eta aukera ezberdinekin liluratu egiten dira.

Zuek bezalako bitartekari batekin prezioa zein kontratuaren baldintzak hobetzea posible da?
Langile guztiek bezala, gure lanak bere kostea du, baina, urtean zehar segituan amortizatzen da. All4movil-en telefoniarekin dirua, denbora eta lasaitasuna aurrezteko aukera eskaintzen dugu.

Enpresa martxan jarri zenutenetik, sektorea asko aldatu da?
Sektore nahiko lineala dela esan daiteke, hau da, urteak joan eta urteak etorri arren, aukeran dauden zerbitzu motak nahiko antzekoak dira, aldaketa handirik gabe. Dena den, kontratuaren baldintzetan eta eskainitako zerbitzuetan aldaketak egon daitezke. Azken urte hauetan gehien aldatu dena marketina eta teknologiak izan dira. Izan ere, ezinezkoa da orain dela 8 urteko telefonoak gaur egungo telefonoekin alderatzea. Zentzu horretan, zenbait belaunaldietan gailu berri hauetara egokitzeko prozesua burutu ez denez, telefonoak eskainitako aukera aprobetxatzen ikasteko ikastaroak eskaini ditugu.

Pandemiak telefonia eta teknologia berrien garrantzia agerian utzi du?
Entretenimenduaz aparte, egun mugikorra beste zenbait gauzetarako erabili daiteke. Komunikazioaren erdigunean dago, telelana edo teledeiak bezalakoak ahalbidetuz. Mugikorra, mundu bat baino gehiago, unibertso oso bat dela esan daiteke eskaintzen dituen aukera guztiengatik.

Zein motatako ikastaroak eskaintzen dituzue?
Maila desberdinetako ikastaroak ditugu. Oinarrizko mailakoetan egutegia, alarmak edo bestelako oinarrizko funtzionalitateak erabiltzen irakasten dugu. Hurrengo maila batean aplikazio zehatz batzuk erabiltzen edo publizitate iragarkien agerpena kontrolatzen irakasten dugu. Aldiz, maila altueneko ikastaro gutxi eskaintzen ditugu, izan ere, Youtuben gai oso konkretu horiek azaltzen dituzten bideo asko daude edonoren eskura. Mugikorraz gainera, telebista arloarekin loturiko formakuntza eskaintzen dugu ere.

Eskainitako zerbitzua guztiz pertsonalizatuta dagoela esan daiteke?
Hori da, bezero bakoitzak behar eta nahi ezberdinak dauzka. Bezero gazteenen nahia aurreztea da, familiek haurrentzako programak dauzkaten telebista zerbitzuak bilatzen dituzte edo adinekoek telefono eta internet zerbitzu oinarrizkoenarekin konformatzen dira. Enpresekin berdin gertatzen da, enpresa motaren arabera beharrak ezberdinak dira eta gu behar horietara egokitzeko ahalegina egiten dugu. Txingudi badian Frantziarekin harreman estua dugu, beraz, kasu horretan ezberdina izango da konpainia bat edo bestearen zerbitzua kontratatzea.

Nola moldatzen zarete bezero berriak erakartzeko?
Sare sozialetan gaude eta, hortaz gain, gure inguru hurbilean lan egiten dugu batez ere. Bulegoa Puiana auzoan kokatuta dugu eta jendeari guri bisita egin eta zalantzak argitzera hurbiltzea aholkatzen diogu. Izan ere, lehen zerbitzua debalde eskaini ohi dugu, nor garen eta nola lan egiten dugun ikus dezaten. Azken finean, bezeroen onurak bilatuz lan egiten dugu.

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94

HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak
ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12

Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak astelehenetako elkarretaratzeak bertan behera utzi ditu Irun eremu gorritik atera arte

Txingudi Pentsionisten Mugimenduak astelehenetako San Juan plazan egin ohi diren elkarretaratzeak bertan behera uzta erabaki du Irun eremu gorritik atera arte. Txingudiko Pentsionisten Mugimenduko ordezkariek baieztatu dutenez hirian osasun krisialdiaren egoera era nabarmenean hobetzen denean berreskuratuko dira pentsio duinen aldeko mobilizazioak. 2021eko urtarrilaren 15ean hiru urte bete ziren pentsionisten mugimenduaren hasieratik.

100.000 biztanleko intzidentzia metatuak Irunen 500 kasuak gainditu ostean, pentsionisten kolektiboak egoera era nabarmenean hobetu arte kontzentrazioak etetea erabaki du. Urtarrilaren 26ean, Irun ofizialki eremu gorrian sartu aurreko egunean, Txingudiko Pentsionisten Mugimenduko ordezkariek adierazi zutenez, astelehenetako elkarretaratzeak eta manifestazioak bertan behera uztea erabaki da osasun krisialdiaren aurrean arduraz jokatzeko. Izan ere, pentsionisten elkarretaratzeetan segurtasun neurri guztiak errespetatu arren, adineko pertsonak pandemiaren aurrean kolektibo zaurgarrienetako bat direla kontutan hartuz, egoera hobetu arte kontzentrazioak bertan behera uztea adostu da. Hala ere, pandemiarekin edo pandemiarik gabe pentsio publiko duin batzuk lortzeko borrokari eutsiko diotela baieztatu dute pentsionisten mugimenduko ordezkariek.

Elkarretaratzeen etetea iragartzeaz gainera, Txingudiko Pentsionisten Mugimendutik osasungintza publikoa defendatu eta osasun arloko langileei elkartasuna adierazi zaie. Horrela, osasungintza publikoa langile eta baliabide gehiagorekin laguntzeko beharraz ohartarazi du pentsionisten kolektiboak, hainbat sindikatuk eta Osakidetzako langileek egindako aldarrikapenekin bat eginez . Era berean, COVID-19aren txertaketa kanpainan zehar agintarien jarrerarekin loturik azaleratutako irregularitasunak eta kargu publikoen jarrera arduragabeak salatu dituzte.

Borroka nekaezina

2018ko urtarrilaren 15ean abiatu ziren estatuan pentsionisten mugimendutik deituriko mobilizazioak. Egun batzuk lehenago WhatsApp aplikazioaren bitartez zabaldu zen San Juan plazan elkartzeko deialdi anonimoa. Hortik aurrera, beranduago Txingudiko Pentsionisten Mugimenduan bihurtuko zena sortu eta antolatzeko zenbait hiritar elkartu ziren, instituzio eta antolakunde sindikal, sozial eta politiko guztietatik independentea izango zen mugimendu bat abiatzeko. Izan ere, mugimenduaren sorreratik talde anitz, transbertsal eta bateratu bat sortzeko nahiari garrantzi handia eman zaio, pentsionisten mugimendua ideia, ideologia eta pentsamolde ezberdinak dauzkaten pertsonentzako elkargunea izan zedin.

Herritarren ekimenetik sorturiko mugimendua %0,25eko igoera iraingarri eta eskasa arbuiatzeko ideiarekin sortu zen, baina, pixkanaka eskakizun gehiago batu ziren pentsio publiko duin batzuk eskuratzeko borrokara. Azken hiru urteetan zehar Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak Irunen antolatutako elkarretaratzeez gainera, Gipuzkoa zein estatu mailan antolatutako beste kontzentrazioetan parte hartu du. Era honetan, han-hemen egindako mobilizazio jendetsuei esker pentsioen gaia agenda politiko zein mediatikoan txertatzea lortu dute. Mugimenduaren inguruan bilduko pertsona kopuru handiak pentsionisten eskakizunen garrantzia ohartarazten zuen bitartean, pentsionisten mugimenduaren gaia komunikabide ezberdinetan gaurkotasunezko gaian bihurtu zen.

Pandemiaren eragina

Beste edozein arlotan bezala, COVID-19aren pandemiarekin pentsionisten elkarretaratzeak eta eskariak bigarren plano batera pasa ziren. Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak hirugarren urteurrenaren harira argitaratutako adierazpenean azaldu bezala, pandemiaren ondorioz hititar eta pentsionista asko zendu dira azken urtean zehar, ospitaleek bete ziren eta osasun krisialdiaren atzetik azken hamarkadetan ezagutu gabeko eragin sozial eta ekonomikoa etorri zen. Gauzak horrela, pandemiak osasun sistema publikoaren eta zainketen arloko gabeziak eta akatsak agerian utzi zituen.

Bitarte horretan, pentsioen etorkizuna baldintzatu duten hainbat gertakari jazo dira. Besteak beste, gobernu aldaketa gertatu zen, Toledoko Hitzarmeneko gomendioak adostu dira eta oraindik pentsioen etorkizuna baldintzatuko duen lege proiektu bat onartzeko dago. Txingudiko Pentsionisten Mugimendutik adierazi denez, borrokaren iraupen luzea, eguraldi txarra eta pandemiaren gainetik, kolektiboak pentsio publiko duin batzuk lortzeko borrokari eusten dio, orain eta etorkizunean pentsionistek bizitza duina izatea bermatuta egon dadin.

Bost dira Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak bere kontzentrazio eta manifestazioen bitartez defendatzen dituen eskariak: solidario eta nahikoa izango den pentsioen sistema publikoa, KPIaren (Kontsumoko Prezioen Indizea) arabera pentsionisten erosketa ahalmena bermatzea, bizitza duina bermatuko duen 1080 gutxieneko pentsioa, pentsioen zenbatekoetan genero-arrakalarik ez izatea eta jasangarritasuna faktorea gisa indargabetzea. Aldarrikapenak gogoratzeaz gainera, mugimenduaren hirugarren urteurrenean pentsionisten ordezkariek hiru urte horietan zehar mugimenduarekin bat egin duten pertsonen babesa eskertu dute.

Helburua argi baino argiago

Hortaz hirian osasun krisialdiaren bilakaera hobetu bezain laster Txingudiko Pentsionisten Mugimendua pentsio publiko duinen borrokara itzuliko dela adierazi du. Zentzu horretan mobilizazioak berreskuratu ostean, kolektiboaren eskariak entzun eta errealitate bihurtzen direla ikusi arte elkarretaratzeen antolaketarekin aurrera jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute antolatzaileek. Beraz, nork gobernatzen duen axola gabe, pentsioak defendatzen jarraituko dutela oihukatu dute.

Jauzien Gipuzkoako Txapelketa Jaizubia Zaldi Eskolan egingo da otsailaren 6 eta 7an

“Gure hirian kalitatezko zaldizkoak eta zaldiak izango ditugu”
Xabier Berrotaran, Jaizubia Hipikako kirol zuzendaria

Jaizubia Zaldi Eskolak Irunen 2020ko Jauzien Gipuzkoako Txapelketa antolatuko du otsailaren 6 eta 7an. Gipuzkoako Hipika Federazioaren eskariari erantzunez, hipika elkarte irundarra izango da txapelketaren antolakuntza kudeatzeko arduraduna. Hitzordua 2020ko urriaren 31n eta azaroaren 1ean egitekoa zen, baina, indarrean sartutako osasun neurriak direla eta txapelketa atzeratzea beharrezkoa izan zen.

Otsaileko lehen asteburuan Irunen egitekoa den txapelketan 100 zaldizkok parte hartuko dutela aurreikusita dago. Hortaz, txapelketan Jaizubia klubeko zaldizkoez gainera, Gipuzkoa edo Nafarroatik etorritako kirolariek ere parte hartuko dute. Nafarroako zaldizkoen kasuan, ez dute lurraldeko titulua lortzeko aukerarik izango. Xabier Berrotaran, Jaizubiako kirol zuzendariak azaldu duenez, “Probak zorrotzak eta ikusgarriak izango dira, eta gure hirian kalitatezko zaldizkoak eta zaldiak izango ditugu”.

Probak Jaizubia Elkarte Hipikoaren pista nagusian egingo dira, 2018ko ekainean Gipuzkoako Jauzi Txapelketarekin eta Irungo Hiriaren XXXI. Sari Nagusia ‘Nagore Otaño Omenaldia’-rekin estreinatu zena. Pistak gaur egun, 85×70 metro eta 6.000 metro karratu dauzka. Hortaz, Jaizubiako pista Euskadiko pistarik handiena eta estatuko iparraldeko bigarrena da, Zamorakoaren atzetik.

Txapelketako hitzorduak goizekoak 8:30etatik eta 9:00ak artean hasiko dira, eta altuera desberdineko jauziak izango dira, hau da, 0,50 metrotik 1,30 metrora bitartekoak. Parte-hartzaileak eta bertaratutakoak errazago iristeko, ibilgailuentzako aparkalekuak jarriko dira Txingudi Ikastolako aurreko zelaian eta Urdanibia jauregiaren inguruan.

Maite Gonzalez, Jaizubia Elkarte Hipikoko lehendakariordeak eskerrak eman dizkio Gipuzkoako Hipika Federazioari Jaizubia klubean txapelketa antolatzeko konfiantza izateagatik. Izan ere, Maite Gonzalezek gogoratu duenez, egungo egoeran parte-hartzaile guztientzat segurua izango den txapelketa bat antolatzea ardura garrantzitsua da.

Segurtasun-neurriak nagusi
2020ko Jauzien Gipuzkoako Txapelketa COVID-19aren zabalpena ekiditeko neurriengatik baldintzatuta egongo da. Hortaz, txapelketaren eremura sartzeko bi ate egongo dira eta bertatik igaroko diren pertsonen tenperatura kontrolatuko da bertan. Era berean, txapelketara bideratzen direnek NANarekin identifikatzeaz gainera, harremanetarako telefono bat eman beharko dute, behar izatekotan, Jaizubiatik igarotako pertsona guztiak lehenbailehen identifikatzea eta haiekin harremanetan jartzea posible izan dadin. Gainera, barrutira sartzen direnei kolore bateko eskumuturrekoa emango zaie larunbaterako, eta beste kolore batekoa iganderako.

Bestetik, zaldientzako dutxen eremurako sarbidea mugatua izango da. Esparru osoan akreditatutako langileak egongo dira, txapelketaren antolakuntzatik distantziei eta maskarei dagokienez ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko.

Hortaz gain, megafonien bidez etengabe indarrean dauden segurtasun-neurriak gogoratuko dira. Hala ere, kontutan izatekoa da Eusko Jaurlaritzak alarma-egoeraren inguruan hartutako neurrien arabera 2020ko Jauzien Gipuzkoako Txapelketaren antolaketa baldintzatu dezakeela.

Klubeko jarduerari eutsiz
Pandemiak kirol entrenamendu eta txapelketen erritmo ohikoari eustea zailtzen ari duen arren, Jaizubia Hipikatik agintariek ezarritako segurtasun neurri guztiak betez, zaldien inguruko ikastaroak eta bestelako kirol ekitaldiak antolatzen jarraitzeko ahalegin berezia egiten ari da. Esaterako, urtarrilaren 2 eta 3ko jardunaldien ostean, Ricardo Jurado Espainiako Hipika Errege Federazioko jauzien hautatzaile eta entrenatzailea izan zenak, Irungo Jaizubia Zaldi Eskolara itzuli zen urtarrilaren 16, 17, 30 eta 31ean bi klinik eskaintzeko.

Bertan, parte hartzaileek Ricardo Juradoren aholkuez eta jakinduriaz gozatzeko aukera izan zuten. Klinik horien helburua ikasleen zaldiketa edota zaldien entrenamendua hobetzea da, hautatzaile eta entrenatzaile nazionala izan zenaren esperientzia baliatuz.

Ricardo Jurado Espainiako Errege Federazioko jauzien hautatzaile eta entrenatzailea da, 2018tik. Bost Espainiako Txapelketa absolutu irabazi ditu (1999, 2000, 2001, 2005 eta 2008), hiru Europako Txapelketa (Hickstead 1999, Arnhem 2001 eta Manheim 2007) eta bi Munduko Txapelketa (Jerez 2002 eta Aachen 2006). Sidneyko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen.

27 Nazioen Kopetan parte hartu du (1999tik 2010era), eta Lisboan, Bartzelonan, La Baulen eta Gijonen (bi aldiz) jokatutako kopak irabazi ditu. Gainera, Bartzelonako Nazioarteko Sari Handiak irabazi ditu: Samsung finala (2007), Lisboako CSIO (2001), CSI2* Toledo (2006), CSI2* Bartzelona (2006), CSI3* Dinard (2008) eta CSI2* Fontainebleau (2008).

Hortaz gain, Jaizubia Hipikatik momentuko murriztapen eta segurtasun neurrietara egokitzen ari dira. Egoeraren arabera ahal den neurrian ikastaroak eta txapelketak antolatzen jarraitzen duten bitartean, datozen hilabeteetan pandemiak nolako bilakaera izango duen ikusi beharko da, Jaizubia Hipikak San Pedro eta San Martzial jaien inguruan antolatu ohi duen Jauzi Txapelketa bezalako lehiaketa mitikoekin zer gertatuko den ikusteko.

Gorka Kijera, Real Unioneko jokalaria:

“Martxa ona hartu dugu eta gauzak ondo ateratzen ari zaizkigu”

Real Union klubeko lehen taldea denboraldiko bigarren zatiari aurre egiteko prestatzen ari da. Azken partiduetako emaitza onak mantendu eta igoera postuei eusteko asmoa du talde irundarrak. Gorka Kijera jokalari txuri-beltz hernaniarrak taldearen helburuen errepasoa egin du, hartutako erabakiak zelaian jokaldien bitartez gauzatzeko unea iritsi dela aipatuz.

Real Union futbol taldeak askotan Ugaldeko futbol zelaian entrenatzen du, ezta?
Bai, egia esateko, taldeak, Ugalden Stadium Galeko zelaian baino gehiago entrenatzen du. Izan ere, Ugaldeko belarra Galeko belar artifiziala baino baldintza hobeagotan dago, beraz, kalitatezko entrenamenduak egiteko aukera ematen digu.

Azkenengo aste hauetan zehar taldeak erritmo ona hartu du?
Bai, martxa ona hartu dugu eta gauzak ondo ateratzen ari zaizkigu. Partiduko momentu gehienetan gauzak ondo egiten ari garela esango nuke. Lehen, aurkariek gutxi emanda kalte asko egiten zioten gure taldeari, baina, orain dinamika hori aldatu da eta gure lana oztopatzea gehiago kostatzen zaie. Bide onean gaudela uste dut, ea horrela jarraitzen dugun.

Denboraldi hasierako zailtasunak gaindituta, orain taldea erosoago dabil?
Pixkanaka taldea egonkortzen ari garela esango nuke. Denboraldiaren hasiera nahi baino gehiago kostatu zitzaigun. Izan ere, hasieran jende berri askorekin elkartu ginen arren, orain apurka apurka elkar ezagutzen goaz eta talde bezala hazten. Taldean bilakaera ikustea seinale ona da, gauzak ondo egiten ari direla erakusten du. Gauzak ondo atera daitezen taldea hazi egin behar da, hain zuzen ere, hori da gauzak ongo egiten ari direlaren seinalea.

Entrenamenduetan jokalariak elkartuagoak zaudetela nabaritzen da?
Bai eta hori gertatzen ez bada, Aitor dugu horretarako. Hortaz, egunen batean taldea gehiegi erlaxatzen bada edo oso fin ez gauden egunetan, Aitorrek ez digu erritmoa jaisten uzten.

“Hartutako erabakiak gauzatzea izan behar da gure lehentasuna”

Nola baloratzen duzu Zourdine Thior-en fitxaketa denboraldiaren bigarren zatian?
Ondo, taldera ekarpen nahiko ezberdina egin dezakeen jokalaria dela uste dut. Azkarra dela ematen du, beraz, bere ekarpena laguntza handikoa izango dela ematen du. Geroz eta jokalari gehiago eta hobeak izan taldearentzat geroz eta hobeto, azken finean, denok postua irabazi beharko dugu. Taldearen maila igoko duten jokalari guztiak ongi etorriko zaizkigu.

Igoera postuetan mantentzeko, denboraldiaren bigarren zatian etxean partidu gehiago jokatzea lagungarria izango da?
Bai, beti esaten da, ligan etxean lortu behar direla helburuak. Izan ere, etxean 6 partidu edukitzeak garrantzi handia izango du. Hala ere, egia da aurkari zailen aurka indarrak neurtu beharko ditugula, Racing, Bilbao-Athletic eta Amorebieta bezalako taldeak datoz. Dena dela, etxean jokatzeak beti nolabaiteko abantaila ematen dizu, beraz, ondo bagaude garrantzi handikoak izango dira guretzat.

Zein izan daitezke igoera postuetan mantentzeko gakoak?
Azkeneko asteetan erakutsitako maila erakustea. Maila hori emanez gero, sailkapenean mantendu ahalko gara. Orain taldeak emandako pausu honi eustea eta maila bera erakusten jarraitzea funtsezkoa izango da.

Mirandesen ibili ostean, zergatik erabaki zenuen Real Unionera itzultzea?
Aurre-denboraldian Aitorrei esan nion, Real Unionera itzultzeko asmoa ez dela azken urteak hemen egitea eta erretiroa hartzea. Nire ustez Real Unionentzat Bigarren B Pro maila horretan sartzea izan behar da eta ideia horrekin etorri naiz, klubari hazten laguntzeko. Taldea Bigarren B Pro maila eramatea polita izango litzateke eta horretarako lanean jarraituko dugu.

Nola baloratzen duzu taldeko jokalari gazteen lana?
Ondo, niri gaztetan gertatu bezala, jokalari gazteek kalitatea dute, baina, nozio taktikoak barneratzea gehiago kostatzen zaie. Kalitatea eta fisikoki primeran daude, baina, gauza taktikoak lantzeko denbora behar dute. Azken finean, adina eta esperientziaren bitartez ikasten diren gauzak dira eta denborari esker, nik egin nuen bezala, barneratuko dituzte.

Zeintzuk dira Real Unionek azken neurketetara begira hobetzeko dauzkan gauzak?
Hartutako erabakiak gauzatzea izan behar da gure lehentasuna. Adibidez, Santanderreko partiduaren bigarren zatiaren hasieran bi edo hiru aukera izan genituen, jokaldi tuntun batean gola sartu ziguten eta asko sufritu behar izan genuen. Horrela, ditugun aukera guztiak aprobetxatzen jakin behar dugu.

Udaltzaingoak patinete elektrikoen erabilera irizpideak jakinarazteko kanpaina abiatu du

Cristina Laborda Udaltzaingo ordezkariak eta Borja Olazabal Mugikortasun ordezkariak Irungo Udalak hiritarrei patinete elektrikoen erabileraren araudi berria azaltzeko abiatutako kanpainaren berri eman dute. 2021eko urtarrilaren 2tik Espainiako Trafiko Zuzendaritzak onartutako patinete elektrikoen erabileraren araudi berria indarrean dago.

Espainiako Trafiko Zuzendaritzak urte hasieran onartutako araudi berriaren arabera, patinete elektrikoak zentzu guztietan ibilgailu bezala errekonozituak dira, hortaz, patinete elektrikoen gidariak zirkulazio arau guztiak errespetatu behar dituzte, auto edo motorren gidarien antzera.

Cristina Laborda Udaltzaingo ordezkariak jakinarazi duenez, hirian Udaltzaingoak patinete elektrikoen erabilera kontrolatzeko baliabideak eskura dauzka, azkenaldian mota honetako ibilgailuen erabilera era nabarmenean zabaldu ostean. “Orain patinete elektrikoen erabiltzaileak galtzadatik mugitu beharko dira, ez espaloitik, beti ere araudia errespetatuz. Hirian patinete elektrikoen erabiltzaileei indarrean daude neurri berrien inguruko informazioa emateko kanpaina burutu dute udaltzainek azken asteetan zehar. Zehazki, ibilgailu hauen interesekoa izan daitekeen informazioa biltzen duten eskuorri batzuk prestatu dira.

Bestetik, Borja Olazabal Mugikortasun ordezkariak azaldu duenez, patinete elektrikoak garraiobide jasangarriagoa izan arren, bizikletekin gertatzen den bezala, “era honetako ibilgailuen erabilera arautzea ezinbestekoa da”. “Era honetan, adibidez, espaloitik oinez doan jendearekin arazoak sortzea saihestu daiteke”, Olazabalek azaldu bezala. Hortaz, Mugikortasun ordezkariak gogoratu du espaloiak edo oinezkoentzat erreserbatutako guneen erabilera oinezko edo gurpildun aulkian mugitzen diren pertsonentzat mugatu behar dela.

Gainontzeko ibilgailuen antzera

Urtarrilaren 2tik indarrean dagoen legediaren arabera, patinete elektrikoak ezingo dute espaloietatik ez oinezkoentzako guneetatik zirkulatu, ezta hiriarteko bideetatik, zeharbideetatik eta udalerriak komunikatzen dituzten autobide eta autobietatik ere. Era berean, ezingo dute zirkulatu hiri barruko tuneletatik. Zehazki, Irunen kasuan, era honetako ibilgailuekin ezingo da saihesbidetik ibili. Bizikletak ibil daitezkeen eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen zirkulazioa berariaz debekatuta ez dagoen lekuetatik ibiliko dira eta inondik inora ere ezingo dute 25 km/h-ko abiadura gainditu.

Hortaz gain, gainontzeko ibilgailuen gidarien antzera, alkohol eta droga probak egiteko betebeharra izango dute patinete elektrikoetako gidariek, baimendutako gehienezko alkohol tasaren kopurua berdina izango delarik. Oro har, gainontzeko gidariek jasotzen dituzten zigor berak jasoko dituzte. Nolanahi ere, patinete elektrikoak gauez erabiltzen direnean argiak edo jantzi islatzaileak eraman beharko dira.

Bestetik, patinete elektrikoentzako gidarientzat debekatuta egongo da belarrietan entzungailuak eramatea eta gidatzen den bitartean sakeleko telefonoa erabiltzea. Bi arau hauste hauek 200 euroko isunarekin zigortuko dira. Gainera, patinete elektrikoetan pertsona bakarra mugitu ahalko da, hau da, ezingo da beste norbait garraiatzeko erabili. Kasu horretan, patinete batean aldi berean bi pertsona edo gehiago harrapatuz gero, 100 euroko isunarekin zigortuko da arau-haustea. 18 urtetik beherako arau urratzaileei dagokienez, guraso edo adin txikikoen tutoreen erantzukizuna izango da. Patinete elektrikoak erabiltzeko ez da beharko baimen administratiborik, gidabaimenik ez nahitaezko asegururik. Bestalde, era honetako ibilgailuak erabili ahal izateko gidatzaileei ez zaie gutxieneko adinik eskatzen.

EUCARIS

Bestalde, polizia munizipalaren jarduerarekin loturik, Udaltzaingoak jakinarazi duenez, EUCARIS aplikazio informatikoan sartu da. Europako hainbat herrialdek sortu dute aplikazio horrek ibilgailu, jabe eta gidabaimenekin loturiko datuei buruzko informazioa lortzeko aukera ematen du. Irungo Udaltzaingoa da sare horretara sarbidea lortu duen Euskadiko lehen Udaltzaingoa.

Tresna honen xedea delituak prebenitu eta jazartzea da, kontsulta egiten duen estatuaren eta aplikazioko estatu kideen auzitegien edo fiskaltzen eskumenekoak diren bestelako arau-hausteak jazartzeko. Beraz, aplikazioak ordena publikoa zaintzeko helburua du. Horregatik, datu-baserako sarbideak eta kontsultak justifikatuta egon beharko dira. Horri esker, udaltzainen lana asko arinduko da, praktikan Europar Batasuneko ibilgailu baten datuak berehala eskuratu ahal izango baitituzte.

EGUZKITZA LH4

Denbora-pasak

7 hitz: Irungo auzoak

F Z Y J C W S S T Z O B D P
C L H S K L A C C Z C W E Q
U W K J B I D A S O A Y M F
J A L V B G L E J Z G O U D
Z N O S Q L P B E H O B I A
K A T E A W Q D M N C C S M
D K U W Q O S O Q A N I L M
H A O Z B B R H D R O O Q P
E M P S W D T C I M J G Q T
Q K S G M E N Z M H Z X W P
O L A B E R R I A R C N Z Z
E G E X A Z L A P I T Z E S
B V X D K R I O A N A I V A
L J K D A N N R X I J N G L

Anaka, Behobia, Bidasoa, Lapitze, Meaka, Olaberria, Katea.

				8	9			
	1	3		5			9	
	5	7	3		4		8	
5		9		7	3			
		1					3	9
4						5	7	
7	6		1					
			9	6	7	4		
1				4			6	

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

2021

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan
Egilea: Iker Altuna Albisu

Etorkizunak zer izango du
bere barruan gordea?
Zein izango da, aurrerantzean,
munduaren kolorea?
Nahiz topikoak baliatzea
ez den oso dotorea;
honek badauka, oraintxe bertan,
berez balio doblea:
ea urte hau izaten dugun
bestea baino hobea!

Koronabirus, gu guztiokin,
izan ezazu gupida;
eta pixka bat estutu zaitez
jarri dizugun neurrira.
Antzematen dut, nire barruan,
zu suntsitzeko desira.
Baina, badakit, ezinezko da;
onartu behar dut, tira!
Gaixotasunak, ezinbestean,
bizitzaren parte dira.

Txalotzekoa izan da, zinez,
jende batzuen kemena;
txalotzekoa, jende batzuek
erakutsi duten sena.
Ebidentea izanagatik
eragindako problema,
ebidentea izanagatik
jende askorengan pena;
holakoetan ateratzen da
ondoriorik onena.

Askatasuna murriztu zaigu,
dastatu dugu kartzela;
eta lehenago alaia zena
bilakatu da goibela.
Baina berriro lor dezakegu
denok nahi dugun epela,
nahiz badakidan nahi eta nahi ez
ez dela izango horrela;
pentsatu nahi dut trantze txar honek
indartuko gaituela.

Ni kontziente naiz birusak hemen
egin duen desmasiaz,
jendarte honek ahosabaian
daukan zapore gaziaz.
Baina egoera gaindi daiteke,
neurri batean, graziaz;
eta musika kontzertu on bat
itxaroten dut antsiaz.
Bene-benetan ohar gaitezen
kulturaren garrantziaz!

Hemen ez da deus zuri ala beltz,
galdu ala irabazi;
dakidana da behar dugula
jende oro pentsarazi.
Irakurlea, mindu bazaitut,
behar dut esaten hasi:
jendarteari nire ikuskera
nahi nion hemen erantsi,
azken finean nire barruan
neukan hori adierazi.

Irungo La Salle LH6

Marrazki hau plastikako klasean egin dugu. Marrazkia A4 orri batean geneukan eta marrazkia handitzea zen gure lana. Hasteko, lau zatitan banatu genuen marrazkia eta gure artean nork zein zati egin behar zuen erabaki genuen. Ondoren, A4 fitxa karratu txikiagoetan banatu genuen, marrazki txikiarekiko proportzioa ondo gordez eta marrazkia laukoiztu egin genuen eskalan.

Bidanek beheko bi zatiak marraztu zituen eta Chaymaek eta Luciak goiko parteak. Zenbait zati zailagoak zirenez, elkarri lagundu behar izan genion. Arazo batzuk izan genituen, zati bakoitza banatuta marraztu baikenuen, eta dena ondo moldatzeko hainbat aldaketak egin behar izan genituelako. Dena marraztu eta zati denak moldatu genituenean, marrazkia margotu genuen eta marrazki originaleko koloreak asmatu genituen, kolore suabeak eta argiak erabiliz.

Chaymae Zarzour, Lucía Durán eta Bidane Pérez

Oiartzun neba-arrebek Irungo liburutegian euskarazko irakurzaletasuna aztertu dute Loidi Bekaren bitartez

“Orokorrean, ikerketaren hasierako hipotesiak bete direla esan dezakegu”
Maialen Oiartzun

“Liburutegiko ekintzen eta liburu eskaintzaren berri emateko modu berriak bilatzea proposatzen dugu”
Unai Oiartzun

Unai eta Maialen Oiartzun Irastorza neba-arrebek 2018ko Jose Antonio Loidi Ikerketa Bekaren deialdia irabazi zuen “Euskarazko irakurzaletasuna Irungo Udal Liburutegian” proiektua aurkeztu zuten. Udalak bi urtean behin deitzen du Jose Antonio Loidi bekaren irabazleak jakinarazi zirenetik bi urte baino gehiago igaro ondoren, Oiartzun neba-arrebek ikerketaren emaitzak aurkezteko aukera izan dute.

Zergatik erabaki zenuten 2018ko J. A. Loidi Ikerketa Bekaren deialdira aurkeztea?
Unai: Aspaldidanik biak irakurleak izan gara, etxean horrela jaso dugulako. Euskaraz irakurri arren, batez ere, gaztelaniaz irakurtzen dugula konturatu ginenean, gainontzeko euskaldunei gauza bera gertatzen ote zaien jakin nahi izan genuen. Loidi bekara aurkeztea erabaki genuen, izan ere, Jose Antonio Loidik bere bizitza zehar landutako diziplina desberdinetako ikerketa-proposamenak aurkeztu daitezkeelako eta, horrela, euskara eta literaturarekin loturiko proiektua aurkeztu genuen.

Ikerketa proiektu batean murgildu zareten lehen aldia izan da?
Maialen: Elkarrekin bai. Momentu horretan ni ikasketa master bat egiten ari nintzen eta Unai mundu horren inguruan lan egiten du, beraz, nolabaiteko esperientzia genuen.

Unai: Bai, polita izan da honelako ikerketa batean elkarrekin lan egitea. Izan ere, neba-arrebak izanik honelako lanetan gutxitan tokatzen da elkarrekin aritzea.

Zuena Irungo liburutegiaren euskarazko irakurzaletasuna aztertu duen lehen ikerketa izan da?
Unai: Guk dakigula behintzat orain arte ez da egin zehazki euskarazko irakurzaletasuna aztertzeko helburu konkretua zuen ikerketarik. Behintzat, ez dugu horren inguruko erreferentziarik izan. Hortaz gain, gure ikerketa kontutan hartu ditugun zenbait datu estatistiko ez dakit inoiz aztertuak izan ote diren.

Ikerketa fase desberdinetan banatu duzue, ezta?
Maialen: Bai, hasieran bi fase nagusi bereizi genituen. Lehenengo fasean liburutegiak utzitako datu estatistikoak eta objektiboak kontutan hartu ditugu, adibidez, funtsa, erabiltzaile kopuruak, horien ezaugarriak, mailegatutako liburuen hizkuntzak eta maileguekin loturiko datuak. Bigarren fasea, berriz, datu subjektiboekin osatu dugu, hau da, erabiltzaileen iritzi eta iradokizunak bilduz. Datu horiek eskuratzeko elkarrizketak ezberdinak egin eta saio parte-hartzaile bat antolatu genuen.

Hiritarren ekarpenak zuen ikerketarako esanguratsuak izan dira?
Unai: Bai, oso interesgarriak eta baliagarriak izan dira gure lanerako. Elkarrizketen bitartez ahots eta iritzi kualifikatuak biltzen ahalegindu gara. Beraz, erabiltzaileez gainera, liburutegiko jardueren arduradun, parte-hartzaileak edo argitaletxeetako arduradunengana jo genuen, irakurzaletasunaren sektorearekin duten harremanarengatik. Bestetik, parte-hartze saiora hurbildu zen jendeak gaiarekiko interesa zuela erakutsi zuen eta ekarpen interesgarriak egin ziren.

Ikerketa hasierako hipotesiak bete dira?
Maialen: Orokorrean, ikerketa hasierako hipotesiak bete direla esan dezakegu, izan ere, espero genuen moduan, euskaldun gehienek gaztelaniaz gehiago irakurtzeko joera dutela egiaztatu dugu. Hala ere, Euskal Herri osoan gertatzen den zerbait dela ikusi dugu, ez bakarrik Irunen.

Unai: Diagnostikoa espero genuena izan da, hau da, euskaraz, gaztelaniarekin eta frantsesarekin konparatuta, gutxiago irakurtzen dela ikusi dugu. Beraz, irakurle potentzialarekiko euskararen irakurketa maila baxuago dela egiaztatu dugu. Datu horren atzean dauden faktoreetako bat egoera soziolinguistikoa da, azken hamarkadetan euskararen ezagutzak aurrera egin du, hezkuntzaren eraginez eta populazio gazteenaren artean. Orduan, helduen kasuan muga kuantitatiboak oso altuak dira, euskaldunen kopurua txikiagoa baita eta euskara maila mugatuagoa daukatelako, euskaraz irakurri ahal izatea oztopatzen diena. Haur eta gazteen artean beste hainbat faktore sartzen dira. Mailenek esan bezala, Irunen kasua ez da berezia, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Euskal Herri mailako beste hainbat ikerketa aztertu ditugu eta ikerketa guztietan joera nagusiak errepikatzen direla konprobatu dugu. Hortik aurrera, proposamen batzuk egin ditugu euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko.

Zeintzuk izan dira Irunen euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko egindako proposamenak?
Maialen: Laburki azalduta, proposamenetako batek irakurleak harrapatzeko ahalegin handiagoa egitea behar haraz hitz egiten du. Horrela, irakurle ohikoez gainera, zalantzan dauden irakurleak erakartzeko. Kasu horretan, Unaik azaldu bezala, euskara maila hain altua ez izan arren, euskaraz irakurtzen hasteko pausua eman nahi duten horientzat zerbait berezia egitea lagungarria izan daitekeela uste dugu. Elkarrizketetan bildutako proposamenen artean, euskarazko liburu irakurterrazekin txoko berezi bat sortzea proposatu da. Horrela, zalantzan dauden horiek liburutegian haientzat egokiak izan daitezkeen liburuak aurkituko dituzte. Ikerketan bildutako beste proposamenetako bat liburutegiko harreman-sareak zabaltzea izan da, batez ere, komunikazio bideak zaltzeko helburuarekin. Ikusitakoaren arabera, liburutegian antolatzen diren zenbait jarduerak eta ekintzei ez zaie beharko luketen zabalpena ematen. Hortaz, askotan jendeak ez du jarduera horietan parte hartzen ekintzaren berri ez duelako.

Unai: Hortaz gain, liburutegiko ekintzen eta liburu eskaintzaren berri emateko modu berriak bilatzea proposatzen dugu. Ikerketak erakutsi digunez, euskarazko irakurzaletasunak, batez ere, gazteen artean irakurle asko galtzen dituela ikusi dugu. Haurrak dira, aldiz, euskaraz gehien irakurtzen dutenak. Zentzu horretan, haurren taldetik gazteen taldera igarotzean aldaketa handia nabaritu dugu. Horretarako, irakurle gazteei zuzenduta dagoen atala indartzeko beharra ikusten dugu, ez soilik, liburu kopuruaren aldetik, baizik eta liburu moten aniztasun eta gaurkotasunari dagokienez. Era berean, jada liburutegiko apalategietan dauden liburuak hobeto saltzea eta irakurleak erakartzeko ahalegin berezia egitea, jarduerak antolatuz. Irakurle gazteagoak erakartzeko internet eta sare sozialak erabiltzea lagungarria izan daitekeela uste dugu.

Ikerketan bildutako datu eta ondorioak nonbait kontsultatu daitezke?
Unai: Momentuz dakigula ez. Hala ere, hemendik gutxira, orain arte Jose Antonio Loidi bekaren gainontzeko lanekin egin izan den moduan, ikerketaren txostena eta emaitzak Irungo Udalaren Euskara Arloaren webgunean eskegiko direla suposatzen dugu.

Maialen: Bai, hortaz gain, aurreko baten udaletik Irungo CBA Udal Liburutegian bertan ikerketaren kopiaren bat uzteko asmoa zutela komentatu ziguten, beraz, liburutegira hurbiltzen direnek gure ikerketaren emaitzak kontsultatzeko aukera izango dute.

Auzolandegiak 2021 programaren kartela zuk egin dezakezu

Zu izan zaitezke Auzolandegiak 2021 programaren kartelaren egilea eta sari bikain bat irabazteko aukera izango duzu!

Auzolandegiak programarekin bat datorren kartel bat egiteko ideiaren bat baduzu, parte hartu.

Kartelaren konposizioa piktorikoa, fotografikoa, digitala eta abar izan daiteke.

Lanak aurkezteko epea: 2021eko otsailaren 14ra arte.

Zer bidali:

Irudia: ilustrazioa, konposizioa edo argazkia programa irudikatzeko, JPG, SVG, AI... formatuan, 70 x 50 cm-ko neurriekin, bertikalean edo horizontalean, eta inprentan erreproduzitzeko adinako kalitatearekin.

Izen-emate orria: Izen emate orria (DOCX) bidali behar duzu zure datuekin beteta.

Aukerakoa:
Irudiaren edo programaren zerikusia duen lelo bat proposatu dezakezu, baina, ez da beharrezkoa leloa irudian txertatzea, izen emate orrian idatzi dezakezu, euskaraz zein gazteleraz proposatu dezakezu leloa.

Testu proposamena: "Auzolandegiak/ Campos de Voluntariado Juvenil 2021".

Kontratzaio laguntzak

Irungo udalerrian dauden enpresei ohiko merkatuan langabe izan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden eta Irunen erroldatuta dauden pertsonen kontratazioa erraztea, horien artean, COVID-19k tokiko enpresek ohiko merkatuan eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu ondoren enplegua galdu dutenak.

Epea: 2021eko otsailaren 21ean

2021/2022 ikasturtea atzerrian

2021/2022 ikasturtean zehar AEB, Kanada edo Irlandan ikasketak egin nahi dutuzu?
Chris ´ Hizkuntza Eskolak aukera guztien berri emango dizu.

Gurekin harremanetan jartzeko:

- E-mailez: chrisidiomasbroad@gmail.com

- Telefonoz:: (0034) 699 997 506 (atzerriko egonaldien departamentua) - 605 743 605 - 943 016 362

- Gure bulegoan: Lepanto kalea, 6 behea - 20301 Irun (Gipuzkoa)

Hurrengo urratsa:
Onena elkarrizketa bat izatea da, aurrez aurrekoa edo online (zoom bidez, skype bidez edo zuri hobekien datorkizun bitartekoa erabiliz). Horrela, gauza gehiago azaldu eta behar duzun guztia galde diezagukezu.

Jakina, elkarrizketa honek ez zaitu ezartara behartzen. Erabakiak hartzeko astia izango duzu.

Nahiago baduzu, nahi duzun herrialdeari buruzko informazio zehatza ere bidal diezazukegu posta elektronikoz.

Zuzeneko hitzaldiak YouTube kanalaren bidez

KZgunean zuzeneko hitzaldiekin jarraitzen dugu YouTube KZguneaTIC kanalaren bidez. Astero IKTei buruzko hitzaldi berriak izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz, 30 minutukoak.

Gure zuzeneko hitzaldietara joateko, interesa duten pertsonek Interneterako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita (ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea).

Gogora dezagun, gainera, hitzaldi guztiak YouTubeko gure kanalean grabatuta geratuko direla, nahi denean ikusteko.

Otsailean urruneko hitzaldien plangintza honako hau da:

1. astea: 1G, 2G, 3G? Zer dira?

- Otsailak 2, 19:00 - 19:30 (Euskaraz).

- Otsailak 4, 19:00 - 19:30 (Gaztelaniaz).

2. astea: Ludifikazioa, dena da hobea jolasten

- Otsailak 9, 19:00 - 19:30 (euskaraz).

- Otsailak 11, 19:00 - 19:30 (gaztelaniaz).

3. astea: Google Lens. Zure kamerarekin bilatu

- Otsailak 16, 19:00 - 19:30 (euskaraz).

- Otsailak 18, 19:00 - 19:30 (gaztelaniaz).

4. astea: Argazkigintza mugikorreko aholkuak

- Otsailak 23, 19:00 - 19:30 (euskaraz).

- Otsailak 25, 19:00 - 19:30 (gaztelaniaz).

Deskargatu gure App-a eta eraman gaitzazu beti zure Smartphone edo tabletean, eta eskura izango dituzu nonahi eta noiznahi gure zerbitzu nagusiak!

Otsailak

5

Erakusketara bisita gidatua

Zer: Jesús María Cormán-en "Salvajeza" erakusketara bisita gidatua Helena Elbustoren eskutik.

Non: Menchu Gal Aretoan.

Ordua: 19:00etan.

Izen-ematea: Ekintzan izena emateko cultura@irun.org helbide-elektronikora idatzi edo 943 50 54 08 telefono zenbakira deitu beharko da.

Oharra: Bisita gidatuan gehienez 4 pertsonek parte hartuko dute eta erakusketa era birtualean bisitatzeko aukera egongo da Irungo Udaleko webguneko esteka jarraituz.

7

Antzerkia

Zer: Maestrissimo allegro e molto vivace ikuskizuna Yllana Teatroren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15, 9,50 edo 30 euro, sarrera motaren arabera.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

18

Musika

Zer: Ruper Ordorikaren kontzertua, Arkaitz Miner, Lutxo Neira eta Hasier Oleagaren konpainian.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

20

Antzerkia

Zer: Ikimilikiliklik ikuskizuna, Marie de Jongh konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

20ra arte

GazteARTEan erakusketa

Zer: "Min" Villabonako Zalakain ahizpen erakusketa.

Non: Martindozenea Gaztelekuan.

Ordutegia: Asteartetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara.

Sarrera: Doan.

Oharra: Gaztelekuko erabiltzaileek izango dute erakusketa bisitatzeko aukera. Gainontzeko hiritarrek internet bidez bisitatu ahalko dute, 360°-ko bisita birtualaren bitartez.

21era arte

Erakusketa

Zer: Jesús María Cormán-en "Melancholia" erakusketa.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta larunbateta 9:00etatik 13:00etara.

Sarrera: Doakoa.

Denbora-pasen emaitzak

F	Z	Y	J	C	W	S	S	T	Z	O	B	D	P
C	L	H	S	K	L	A	C	C	Z	C	W	E	Q
U	W	K	J	B	I	D	A	S	O	A	Y	M	F
J	A	L	V	B	G	L	E	J	Z	G	O	U	D
Z	N	O	S	Q	L	P	B	E	H	O	B	I	A
K	A	T	E	A	W	Q	D	M	N	C	C	S	M
D	K	U	W	Q	O	S	O	Q	A	N	I	L	M
H	A	O	Z	B	B	R	H	D	R	O	O	Q	P
E	M	P	S	W	D	T	C	I	M	J	G	Q	T
Q	K	S	G	M	E	N	Z	M	H	Z	X	W	P
O	L	A	B	E	R	R	I	A	R	C	N	Z	Z
E	G	E	X	A	Z	L	A	P	I	T	Z	E	S
B	V	X	D	K	R	I	O	A	N	A	I	V	A
L	J	K	D	A	N	N	R	X	I	J	N	G	L

2	4	6	7	8	9	1	5	3
8	1	3	2	5	6	7	9	4
9	5	7	3	1	4	6	8	2
5	8	9	6	7	3	2	4	1
6	7	1	4	2	5	8	3	9
4	3	2	8	9	1	5	7	6
7	6	4	1	3	8	9	2	5
3	2	5	9	6	7	4	1	8
1	9	8	5	4	2	3	6	7

Jaunartzeak 2021

ERREPORTAJEA+ ALBUMA

155€ -tik aurrera

Argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™